




Domekan Biribilketa Feminista egingo dute lurretako plazan, Durangaldeko neska gazteen topaketa. Irati Areitio, Maitane Totorika eta Leire Etxano iurretarek anfitrioi lanak egingo dituzte. Irrikan daude eskualdeko 90 neskatik gora herriko plazan hartzeko. • 10



Rothenbergerreko beharginak hamar eguneko greban diote

Abadiñoko Rothenberger enpresako langileek grebari ekin zioten astelehenean. Patronala eta sindikatuak akordio batera ailegatu ezean, ekainaren 17ra arte jarraituko dute horrela. Lan hitzarmena berriztea eskatzen dute • **10**



"Beti esan dut Zornotza neure sentitzen dudala"

Mikel Garitaonandia entrenatzailea Zornotza Saskibaloi Taldearen azken hamarkadako lorpen guztietan egon da presente. Gatxa da zornotzarren aulkian beste inor imajinatzea. Atsedean apur bat hartu ostean baloratuko du zuzendaritzagaz entrenatzaile jarraitu ala ez. • **2-3**



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

Gaurko erronka biharko lanbidea

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 31tik ekainak 18ra arte



"Mundu guztia helburu baten atzetik elkarregaz lanean dabilela ikusteak asebate egiten du entrenatzaile bat"

Mikel Garitaonandia entrenatzaileak aurtengo denboraldiaren balantzea egin eta Zornotza Saskibaloia Klubaren gaurkotasuna baloratu du



Mikel Garitaonandia Larrinaga

Zornotza STko entrenatzailea

DURANGO | 1984

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Mikel Garitaonandia hamarkada bat baino gehiago darama Zornotza Saskibaloia Taldeari lotuta, ia urte denak entrenatzaile. Taldeko ardura hartu eta lehenengo denboraldian EBA mailatik Zilarrezko Mailara igo zuen taldeak. Harrezkero, behin baino gehiagotan egon da Urrezko Mailara igotzeko puntuan. Gata da zornotzarren aulkian bes-

te aurpegi bat imajinatzea, baina oraingoz ez du argitu hurrengo denboraldian bertan jarraituko duen. Denboraldi exigente baten ostean, atsedean hartu gura du, etorkizunari buruz berbetan hasi aurretik.

Denboraldi hasierako elkarrizketa batean esan zenuen: "Gure helburua zaleak berriro maitemintzea da. Berriro talde alai eta dibertigarria izatea". Helburuak bete direla esan- go zenuke?

Zorionez, aurtengo taldeak oso maila handia izatea lortu dugu. Joko erakargarria egin eta partidua asko irabazi dugu. Horrek beti erakartzen du jendea. Zoritzarrez, COVIDa dela-eta zaleak ezin izan dira kan-

txan gugaz egon, baina kalean eta sare sozialetan sentitu dugu euren berotasuna. Horrek asko betetzen gaitu, gure lanaren zentzua zaleak direlako.

Bizkaiko jokalarien aldeko apustua egin duzue, hutsuneak atzerriko jokalariekin beteta. Alkimia lan horretan asmatu duzuela dirudi.

Gure aurrekontuagaz, udako fitxaketen merkatuan lehiatzea oso gaitza izaten da. Guretzat oso garrantzitsua da maila ona duten Bizkaiko jokalariek klubera ekartzea. Baina ez da erraza. Askotan uste da gure kontua dela bakarrik, eta ez da horrela. Jokalariek euren bidea izaten dute eta, batzuetan gure bideagaz bat egiten dute, eta beste batzuetan

ez. Aurtengo, zorionez, sei bizkaitarregaz hasi genuen denboraldia.

Zertan laguntzen du etxeko jokalariei gehiago izateak?

Garrantzitsua izaten da taldean giro ona lortzeko. Gauzak txarto badoaz, errazagoa da egoerari buelta ematea taldea elkartuta badago. Hori argi dago. Dena dela, azkenean maila bat behar da. Taldera bizkaitarrak edo euskaldunak sartzeagaitik, horrek ez du esan gura goian egongo garenik. Zorionez, aurtengo etorri direnek oso maila

Inbidiarik batere ez. Amorebietaren lorpena txapela kentzeko modukoa da. Baina eurek lorturikoak ez du gurea gutxiesten

ona eman dute. Hemen falta dena kanpoan bilatzen ahalegintzen gara. Horretan, asmatu egin dugula uste dut. Gainera, atzerriarrek oso ondo barneratu dira bizkaitarrek osatu duten taldean. Horrek guzti horrek ondorioak ditu emaitzetan. **Play off-etan hain gora helduta, aurkari denak gatzak izaten dira. Baina Bartzelona B zen finaleko zozketan sailhestu gura zenuten taldea batez ere?**

Bai, zalantzarik barik. Gure jokatze moduagaitik, talde batzuk beste batzuk baino egokiagoak dira guretzat. Esaterako, Menorca gu baino kalitate eta esperientzia handiagoko taldea zen, baina ondo zetorkigun gure joko erarako. Oso lehiakorrak izan ginen eta aurrera atera genuen kanporaketa. Bartzelonaren aurka justu kontrakoa gertatu zen. Bartzelona ez zen,

Guretzat garrantzitsua da maila ona duten Bizkaiko jokalariek klubera ekartzea. Baina ez da erraza. Askotan uste da gure kontua dela bakarrik, baina ez da horrela

beharbada, azken txanpako talderik onena, baina gure jokamoldera-ko txarren zetorkiguna zen. Euren joko erritmoa, fisikoa, jokalariek txiki- kalitatea...

Larreatik Urritxe aldera begirata, inbidia apur bat sentitzen da?

Inbidiarik batere ez. Amorebietak egin duen denboraldia txapela kentzeko modukoa da. Merezita lortu dute igoera, inork espero ez zuela. Gure partetik, asko poztekoa da. Herriarentzat sekulako lorpena da. Baina eurek lortutakoak ez du gurea gutxiesten. Gurea oso maila handiko lorpena izan da, pronostiko guztien kontra zegoelako. Final bat galtzeak ez du hori aldatzen. Amorebietaren denboraldia sekulakoa izan da eta baita gurea ere.

19.000 biztanleko herriak zer du, bada, halako mirari txikiak izateko?

Pasioagaz eginiko lana, ez dago beste sekreturik. Sakrifizio handia dakarren lana, eta grinaz egin beharrekoa. Amorebieta futbol taldearen eguneroko lana ez dut larregi ezagutzen, baina nabaria da lan bikaina izan dena. Eta berdin gure kasuan ere. Sarritan, zoratzeko moduko lana izaten da. Egutero bertan buru-belarri sartuta egoten gara, nahiz eta profesio- nalak izan ez.

Ez zarete profesionalak?

Jokalariek gutxi batzuk bai, baina kluba daramaten lagunak ez. Ni ere ez, entrenatzaile lanetan. Nik neure lana daukat, eta gero Zornotza Saskibaloia Taldean nabil. Jokalariek askoren kasuan, berdin, edo lana egiten dute edo ikasten dabilta. Eguneko ehunean saskibaloira dedikatzen direnak taldeko jokalariek amerikarrak baino ez dira.

COVID-19aren ondorioz ezohiko denboraldia izan duzu, arraroa. Entrenatzaile baten ikuspuntutik, zer da gehien kostatu zaizuna kudeatzea?

Taldeko partaide izatearen sentimendu hori kantxatik kanpora ezin izan dugula jorratu izan da egoera honen gauza txar bat. Afari baten bueltan edo zerbeza baten inguruan, konexio ugari sortzen da eta aurtengo ez dugu horrelakorik izan. Entrenamenduetatik kanpora deskonektatzeko eta beste kontu batzuetan pentsatzeko modurik izan ez dutenez, jokalarientzat urte gogorra izan da. Zenbakietan, aurtengo entrenamendu kopurua ia-koaren oso antzekoa izan da, baina askoz gehiago entrenatzen ziren sentsazioa zuten jokalariek. Kantxatik kanpora deskonektatzeko aukera faltaren ondorioa da hori.

Etxeko partiduetan zale barik jokatzea beste erronka txiki bat izan da, jokalariek estutzen eta duten dena ematera eramaten dituen aldagai hori falta izan delako batez ere. Hori ere kudeatu beharreko alderdi bat izan da.

Makina bat kontu, beraz.

Bai, eta beste faktore bat ere aipatu gura nuke. Bat-bateko planifikazio aldaketa. Sarritan egokitu zaigu honako egoera hau: astean sei-zazpi saio egin partidua prestatzeko, eta barikuan neurketa bertan behera geratzea, edo gutariko norbaiten edo aurkarietarik norbaiten positibo batengaitik. Eginiko lana alboratu eta beste partidua bat hutsetik prestatzen hasi beharra gogorra izan da niretzat eta jokalarientzat. Gainera, egoera horren beste ondorio bat da astean hirulau partidua pilatu zaizkigula. Hori aurtengo beste buru-hauste bat izan da.

Entrenatzaile batentzat zeregin garrantzitsua da jokalarien animoa altu mantentzea. Baina nork mantentzen du altu entrenatzailearen animoa?

Niri eguneroko lanak ematen dit animo edo grina hori, zeregin honi astean 30, 35 edo 40 ordu eskainita ere. Egunero-egunero jokalariek egin duten lanak eta mundu guztia helburu baten atzetik elkarregaz lanean dabilela ikusteak asebate egiten du entrenatzaile bat. Partiduak irabaztea gehigarri bat da, jakina, baina emaitza batek ezin du dena ordezkatu. Eguneroko lanak asko betetzen nau eta lan horretan taldeak ondo erantzuten badu, errazagoa da animoa goian izatea.

Klubean hamaikagarren denboraldia bete duzu, euretariko bederatzik, entrenatzaile. Kostatzen da urterik urtera formula berriak bilatzea eta erosotasunean ez jaustea?

Bai, zalantzarik barik. Gure lana aldatu egiten da urtetik urtera. Iazko eta aurtengo nire planifikazioak alderatuta, zeharo desberdi-

nak dira. Urtero makina bat partidua ikusten dut, eta ikasten nabil beti. Gero, kontuan hartzekoa da emaitzak beti ez direla eginiko lanaren isla izaten. Iaz oso justu eta atzeko postuetan ibili ginen, eta aurtengo igotzetik partidua batera geratu gara, baina ez dut uste iazko lana txikiagoa izan zenik. Egia da emaitzak ez zirela on-onak izan eta zerbait ez zela egin zegokion moduan.

Talde berean hainbeste urtean egoteko, faktore askok egin behar dute bat?

Gauzak aurrera ateratzeko eta talde batean luzaroan egoteko baldintzarik garrantzitsuenetakoa zugaripintzen duten konfiantza da. Zorionez, zuzendaritzak sekulako konfiantza du nigan, eta nire erara lan egiten uzten didate. Lasaitasun horregaz jarduten dut. Taldeari dagozkion erabakiak neuk hartzen ditut, eta batzuetan ondo

Sekula ere ez dut izan saskibaloitik bizitzeko grinarik. Gustura egotea eta jendeak nigan konfiantza duela sentitzea dira niretzat inportanteena

irtengo dira eta beste batzuetan ez, baina presio hori nire gain hartuta, nigan ipinitako konfiantzak lasaitasuna ematen dit.

Bederatzigarrenaren ostean, hamaikagarrena etorriko ote da?

Beti esan dut Zornotzaren parte naizela eta Zornotza neure sentitzen dudala. Era batera edo bestera, ehuneko ehunetan esan dezaket Zornotzagaz egongo naizela.



Aurtengo, bederatzigarren denboraldia egin du Zornotza STren aulkian. ESF

Entrenatzaile izan, zein ez. Orain ez da hori erabakitzeko unea, taldea zoriontzekoa eta atsedean hartzekoa baino. Denboraldia amaitu eta segituan horri buruz berba egitea ez zait gustatzen. Orain denok deskantsua behar dugula uste dut. Denboraldiak amaitzen direnean hustuta sentitzen naiz eta saskibaloia ez den beste gauza batean pentsatzeko astia hartu gura izaten dut. Zelanbait esanda, arnasa apur bat hartu behar izaten dut.

Batzuetan ematen du bizi osoa daramazula entrenatzaile lanetan, baina 36 urte baino ez dituzu oraindino.

Denboran atzera begiratzen dudanean, nire bizitzaren ia herea Zornotza Saskibaloia Klubean daramadala konturatzen naiz. Urte asko dira eta bertigo apur bat ematen du, egia esanda. Sekula ere ez dut izan saskibaloitik bizitzeko grinarik edo animorik. Nagoen tokian nagoela, gustura egotea eta jendeak nigan konfiantza duela sentitzea dira niretzat inportanteena. Zornotzako lehenengo taldea entrenatzen ez badut, ba, beharbada umeen talderen bat hartuko dut, edo beste zerbait, eta nagoen tokira egokituta, nire lana eta konpromisoa berdina izango dira.



Mikel Garitaonandia bere jokalariei aginduak ematen play off-etako partidua batean. EUSKADIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA.

Labur-labur

Musika talderik gustukoe-na?

Oso musika gutxi entzuten dut, baina lanean nagoela musika klasikoa jartzen dut batzuetan.

Bigarren kirolrik gustukoe-na?

Txirrindularitza.

Janaririk gustukoena?

Indaba gorriak.

Arnasa hartu eta lasaitzeko erabiltzen duzun Durangaldeko txoko bat.

Durangaldean bizi nintze-nean, Pol-Pol aldera igotzea asko gustatzen zaitzaidan. Orain Gernikan bizi naiz eta Atxarrera joatea gustatzen zait.

Partidua hasi aurretik, baduzu maniarik?

Superstizioei ez diet baliorik ematen, baina badut bat. Partidua hasi aurretik, aulkian dauden denei eskua ematen diet, eta ez edozelan: ordenean, eta noan norantzkoa errespetatuz. Hau da, eskumarantz banao eta eskumako eskua luzatzen badut, eurek eskumako eskua eman behar didate. Eta alderantziz.

Hurrengo denboraldiari begira, zein jokalaria fitxatuko zenuke, LeBron James ala Kevin Durant?

Kevin Durant.

Erreferente duzun entrenatzaile bat?

Dusko Ivanovic.

Umetan zirrara eragiten zizun jokalaria bat?

‘Magic’ Johnsonen bideoak ikusten hezi nintzen saskibaloian. Geroago, Kobe Bryant.

Amaitu esaldia: “Hamar urte gazteagoa banintz...

Gauzka oso antzera egingo nituzke”.

Amaitu esaldia: “Hamar zentimetro txikiagoa banintz...

Lepoko min gutxiago izango nuke”.

Durargarrek zabalik dute aurrekontu parte hartzaileetan bozkatzeko aukera

Udalak 18 proposamen egin ditu. Horma bakarreko edo biko frontoi txikiak ipintzea, Pinondon hobekuntzak egitea edo Pump Track zirkuitu bat instalatzea daude horien artean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak 2022ko aurrekontu parte hartzaileak bozkatzeko epea zabaldu du. 18 proposamen jaso ditu web orrian, eta proposamenak baloratu eta botoa ematera deitu die herritarrei. Bertan erabakitzen diren proposamenak arrakastatsuenek 2022ko udal aurrekontuetan ikusiko dute argia, bertan txertatuko dituzte eta. 100.000 eurokoa izango da proiektuak egin ahal izateko diru poltsa.

Durango erregistraturiko elkarteek eta udalerrian errolaturiko 14 urtetik gorako biztanleek eman ahalko dute botoa. Norbere gailu digitaletatik edo udalak atonduriko ordenagailuetatik eman ahalko da. Izan ere, udalak ordenagailu bana ipini du Landako II kiroldegian, Bizenta Mogel bibliotekan eta Herriarrentzako Arreta Zentroan herritarren zerbitzura. Herritar bakoitzak interesekoak zaizkion hiru proposamen bozkatu ahalko ditu

gehienez. Proposamenak hiru, bi, edo puntu bakarragaz bozkatu ahalko dira. Botoa emateko epea ekainaren 30ean amaituko da.

Udal agintariak adierazi dutenez, aurrekontu parte hartzaileak

antolatzen diren hirugarren aldia da. Udalak bide horri jarraitu gura dio. Beste proiektu batzuekin eginiko moduan, herritarrekin "partekatuta eta erabaki" gura ditu kudeaketa lanak.



Proposamenak

Aurrekontu parte hartzaileetan jasotako proposamenetarikoz batzuk.

- Durangoko bidegorriak egokitzea (Aurrekontua: 100.000 euro)
- Parkeetan eta auzoetan horma bakarreko edo biko frontoi txikiak ipintzea. (50.000 euro).
- Pump Track zirkuita atontzea. (100.000 euro)
- Autokarabane eta furgonetek gaua igaro ahal izateko 'camper' gune bat instalatzea. (75.000 euro)
- Madalenako ermitan lanak egitea udal erabilera eman ahal izateko, adibidez, turismo bulegoa bertan ipintzeko. (100.000 euro).
- Pinondoko parkea eta Santa Anako presa txukundu eta argizatzea. (100.000 euro).

ETSgaz sinaturiko hitzarmena Gorenera eramango dute

DURANGO • JONE GUENETXEA

Trenbide zaharreko proiektuaren inguruan Durango udalak eta ETSk aurreko lege-gintzaldian sinaturiko hitzarmenak auzitegietan jarraitzen du. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak helegitea aurkeztu dute Auzitegi Gorenean. EAEko Auzitegi Nagusiak ontzat eman zuen hitzarmen hori, lehenengo instantzian ebazitakoa bertan behera utzita. Gobernu taldea osatzen duten alderdiek diotenez, "auzitegi nagusiak jasotzen duen trazaduraren bidearen balorazioa ez dator legeagaz bat, eta horren arabera durargarrek 2,6 milioi euro ordaindu beharko lituzkete lursail horiek berreskuratzearen". Gaineratu dutenez, "ezin dugu ontzat eman legea ez betetzea justifikatzen duen sententzia bat interes orokorreko arrazoiengaitik". EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak diotenez, "auzitegi nagusiko sententziak justifikatu egiten du udalak obregaitik ETSk ordaindu zutenaren bikoitza ordaintzea koste erreala beharrezkoa".

Eusko Legebiltzarreko kideek Oinarrizko Lanbide Heziketa institutua bisitatu dute

Ikastetxeko kideek beharrezkotzat jotzen dute institutuan orientazio zerbitzu bat ipintzea eta zentroko makineria berritzea. Udalak eskari horiek helarazi dizkio Hezkuntza Sailari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kontua otsailetik dator eta asteon izan du segida. Durango Udaleko ordezkariak Hezkuntza Batzordeko kideekin batu ziren otsailean, Eusko Legebiltzarrean. Oinarrizko Lanbide Heziketa institutuarentzat baliabide gehiago ipintzeko eskatu zuten. Eta orduko hartan eginiko bilerak erantzuna izan du asteon. Legebiltzarreko hainbat kide Duran-

gora etorri da zentroa bisitatzera. Izan ere, ikastetxearen baliabideak daude jokoan. Eta bertan lanean eta ikasten dabilenak ondo daki hori: "Egia esan, ikasleen orientazioaz arduratuko den pertsona baten falta igartzen dugu", adierazi du Igor Notario zentroko irakasleak. Lorezaintzari loturiko gaiak irakasten ditu, eta zentroan "profil askotariko ikasleak" daudela dio: "Ikasle batzuk mugituak dira; bes-

te batzuk atzerritarrak, hizkuntza ondo ez dakitenak; beste batzuek ezintasunen bat dute. Eta denak klase berean egonda, orientatzaile bat edukitzea beharrezkoa dela uste dugu". Bestalde, zentroko makinak eta eraikina "oso zaharkituta" daudela-eta, horiek berrizteko beharrezko dagoela dio Notariok. Zentroko kideen eskariak jaso eta Hezkuntza Sailari helarazi dizkio udalak.



Legebiltzarreko kideek martitzenean bisitatu zuten Oinarrizko Lanbide Heziketa institutua.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko ekainaren 11
19. urtea - 853. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko EAJk "lidergo falta" egotzi dio gobernu taldeari

Legegintzaldiak bide erdia egin duela-eta, jeltzaleek balantzea egin dute. Durango "atzean geratzen dabilela" diote

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Legegintzaldiak bide erdia egin duela-eta, Durangoko EAJk balantzea egin du: pandemiak baldintzaturiko hileak "kontuan hartzen" badituzte ere, Durango udalerria inoiz baino atzerago geratzen dabilela diote jeltzaleek. Izaskun Urien Durangoko Uri Buru Batzarreko presidentek adierazi du gobernu taldea "makillaje politikan" dabilela, "argazkiak eta titular azkarrak" kudeatzen. Horren aurrean, "estrategikoak diren proiektuei" heltzeko beharria azpimarratu du.

"Estrategikoak" diren proiektuen artean, Mireia Elkoroiribe bozeramaileak "Urki-Hegoalde bidea amaitzea" azpimarratu du.

Horrek "enplegua sortzeko gai diren enpresa garbiak" erakarriko lituzke Durangora, "Eguzkitzaren garapen industrial" bultzatuko litzateke horrela, eta kalitatezko enplegua sortuko litzateke, bere esanetan. Lehenetsunezko beste plan batzuk merkatu plaza dinamizatzea edo Antso Estegiz kalea berrurbanizatzea direla gaineratu dute.

Bestalde, kritikak ere egin dituzte. Pinondo Etxea "irtenbiderik eman barik" zarratu zela, eta aurrekontu parte hartzaileetarako ipinitako dirua, 100.000 euro, "irrigarria" dela adierazi dute. "Durangarrek aurrekontuaren %0,29ri buruz erabaki dezakete", kritikatu du Elkoroiribek.

Durangon bost tailer parte hartzaile egingo dituzte HAPOa lantzeko

DURANGO • J.G./M.Z.

Durangoko Udalak bost tailer parte hartzaile ipiniko ditu martxan ekainaren 14tik aurrera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) lantzeko. Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, plan horretan, etorkizunean garatu beharreko udalerriaren hiri-eredua ezartzen da. Bost tailerren bitartez, Durangoko Udalak he-

rritarren ekarpenak eta ikuspuntua bildu gura ditu, "haien beharrianetara hobeto egokituriko HAPO bat garatzeko".

Segurtasun neurri guztiak betetzen direla bermatzeko, parte hartzeko plan@durango.eus helbidera mezu elektroniko bat edo whatsapp mezu bat bidali beharko da 620 868 350 zenbakira, 'HAPOn parte-hartzea eta izen-abizenak' adierazita.



Aritz Bravo eta Julian Rios zinegotziak.

Sinadura bilketa eta horma irudi bat Saioa Agirreri babesa adierazteko

Zornotzako mugimendu feministak kanpaina bat hasi du 13/13 sumarioan auzipetuta dagoen herritarrari elkartasuna adierazteko. Zapatuan hainbat ekintza egingo dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Saioa Agirre zornotzarra 13/13 makrosumarioan auzipetuta dagoela-eta, mugimendu feministak kanpaina bat hasi du hari elkartasuna adierazteko. Alde batetik, herritarrei eskatu diete orri zuri bat hartu, bertan elkartasun mezutxo bat idatzi eta talde argazki bat ate-

ratzea. Argazkiak zornotzakotaldefeminista@gmail.com helbidera edo sare sozialetara (@zornotzakotaldefeminista, @suhaziak) bidali beharko dira. Honezkero, 80 bat elkartasun mezu batu dituzte.

Zapatuari begira, bestalde, ekintza gehiago antolatu dute. 11:30etik aurrera, sinadurak ba-

tzen hasiko dira. Erreferendum plazan eta Lopena tabernaren ondoan leku bana atonduko dute horretarako. Horma irudi bat ere margotuko dute. Mugimendu feministak salatu duenez, Agirreren auzipetzea "tortura eta mehatxupean" eginiko deklarazioetan oinarrituta dago.



Saioa Agirrek askotariko eragileen babesa jaso du, adibidez, Gestampeko beharginena.

110 metroko ibilbidea izango duen Pump Track zirkuitua eraikitzen dabilta Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Pump Track pista bat eraikitzeari ekin dio. Nafarroa eta Jauregizahar kaleen artean atonduko du kirol instalazio berria, Gure Kirolak frontoiaren ondoan dagoen 1.900 metro karratuko orube batean. Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, zirkuituak 110 metroko ibilbidea izango du guztira, eta maila ertaineko ibilbide nagusi bat eta maila aurreratuko beste aldaera bat izango ditu. Udalak honako ezaugarri hauek izango dituela aurreratu du: 6 bihurgune, 17 oztupo eta 2 salto.



Pump Track pista bizikletekin eta irristagailuekin ibiltzeko eremua da.

arizmendi
ikastola **PRO**

AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzak 31 - Ekainak 18

www.arizmendipro.eus

**Arizmendi Ikastolaren
Lanbide Heziketa**

943 77 20 25

arizmendi@arizmendi.eus



GIKARI (Kirol animazioaren irakaskuntza)



ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK



MIKROINFORMATIKA



OSASUN LARRIALDIK

Aldundiak atzera bota du Elorriion eguneko zentroa ipintzeko eskaria

Elorrioko Udalak jakinarazi du lanean jarraituko dutela herrian eguneko zentroa izateko



Elorrioko Udalak lanean jarraituko du herrian Eguneko Zentroa izateko.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak prentsa ohar baten bitartez azaldu duenez, herrian eguneko zentro baten beharrez dagoela plazaratu dio sarritan Bizkaiko Foru Aldundiari, eta Aldundiak azken eskaria ere atzera bota duela. "Eskari historikoa da, aurreko legegintzalditik eskatzen gabiltza. Argi dugu horrelako zerbitzuak Durangon zentralizatzeak ez digula batere mesederik egiten, eta ziur gaude Elorriion eguneko zentro bat egotea familia askorentzat soluzioa izan daitekeela.

Baina Aldundiaren jarrera negatiboa da oraindino ere. Udalaren berbetan, Aldundiak zerbitzua

I. Buruaga: "Eguneko zentroa eta halako zerbitzuak Durangon zentralizatzea arazo bat da"

dagoeneko Durangon bermatuta dagoelako bota du atzera. Baina, udalaren ustez, dena Durangon zentralizatzea "arazo bat" da

elorriarrentzat, "tartean, lekuak daude eta". Horrez gainera, prezioa ere arazo bat dela esan dute. "Aldundiak berak ipintzen ditu koordinaketaren baldintzak, prezioak eta denentzat eskuragarri egongo den kalitatezko zerbitzua. Beraz, borondate politiko kontua dela uste dugu, izan ere, Gizarte Ekin-tzako diputatuak argi utzi digu ez dela eguneko zentrorik egongo Elorriion", azaldu du alkateak. Hala ere, nabarmendu du lanean jarraituko dutela herrian eguneko zentroa izateko.

Elorrioko Udalak Eskola Kirola programari berrekingo dio

Elorrioko Udaletik azaldu dutenez, Eskola Kirola programa 2021/2022 ikasturteari begira ipiniko dute martxan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

COVID-19agaitik programa eten eta gero, Elorrioko Udalak Eskola Kirola programako eskolaz kanpoko kirol jarduerari berrekingo die 2021/2022 ikasturteari begira. Lehen Hezkuntzako lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mailetakoko ikasleei zuzenduta egongo da.

Udaletik jakinarazi dutenez, ekimenaren helburua kirola modu dibertigarrian eta ez lehiakorrean egitea da. Hori bultzat-

zeko, kirol jarduera alternatibo ugari antolatu dutela azaldu dute.

Kirola modu dibertigarrian eta ez lehiakorrean egitea da ekimenaren helburua

Ekintzak Lourdesko Ama Ikastetxean, Txintxirri Ikastolan, Elorrioko Herri Eskolan eta udal kiroldegian egingo dituzte.



Eskola Kiroleko ekimen bateko artxiboko irudia.

Atxondoko Udalak eskolako eraikin zaharra uzteko eskatuko dio Jaurilaritzari

Atxondoko Udalak esan du haur eskola eta ludoteka ipini gura dituela eraikin horretan



Gaur egun, bitik hiru urtera bitarteko umeak daude eraikin honetan.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak azken osoko bilkuran jakinarazi zuenez, eskolako eraikin zaharra erabiltzen uzteko eskatuko dio Eusko Jaurilaritzari. Bilkuran azaldu zuten, sukaldea eta bitik hiru urtera bitarteko umeentzako gela berria egiten dutenean, eskola zaharreko eraikina libre geratuko da eta horri beste erabilpen bat eman gura diote. Gaur egun txaboletan dauden haurreskola eta ludoteka eraman gura dituzte eraikin horretara.

Gobernu taldeak azaldu zuenez, Jaurilaritzagaz hitzarmen bat sinatzea izango litzateke asmoa, eta egunen batean Hezkuntza Sailak eraikin hori beharko balu, berriro ere eurei uztea. Eraikina udalarena da, baina erabilera Jaurilaritzaren esku dago.

Santa Katalina ermitatik Etxeitako arteraino doan bidea konpondu dute

GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garaiko Udalak Santa Katalina ermitatik Etxeitako arteraino doan herri bidea konpondu du. Garaiko Udaletik azaldu dutenez, bertan bizi diren garaitarren eta Etxeitako artea ikustera joaten diren bisitarien ibilgailuen segurtasuna indartu gura dute lan horiek.

Hori horrela, eta segurtasuna bermatzeko aldera, babesak ipini dituzte errepede ertzean. Babes horien barrualdea metalezkoa da, eta kanpoaldea zurezkoa. Bestalde, herri-bide hori estua dela kontuan hartuta eta babesak ipini ahal izateko, inkak ipini dituzte bidearen kanpoaldean, hainbat garieratan, orografiaren arabera.

Adierazpen plastikoko eta eskulanen tailerra antolatu dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Kultura Sailak adierazpen plastikoko eta eskulanen tailerra eskainiko du Lehen Hezkuntzako gazteen-tzat. Tailerrean, zeramika eta pintura landuko dituzte besteak beste.

Ikastaroa ekainaren 21etik uztailaren 1era egingo da, talde murriztuetan, gehienez 10 lagunek taldeetan. Maila bakoitzak egun batzuk izango ditu.

Udaletik azaldu dutenez, izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 17ra arte eman ahal da izena. Horretarako, 94 682 78 60 telefono zenbakira deitu daiteke, kultura@berriz.eus helbide elektronikora idatzi edo Berrizko Kultur Etxera bertara joan.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

 **Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 **IURRETA**
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 **Zurgintza**

 **ATERPE AROTZAK**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Izurtzan auzotaxia martxan da astelehenetik, osasun zentroetara joan-etorriak egiteko

Auzotaxia astelehenetik barikura egongo da indarrean, eta euro bikoa izango da prezioa joan-etorri bakoitzeko

IZURTZA • J.D.

Izurtzako auzotaxia martxan da astelehen honetatik. Zerbitzu honegaz, Izurtzan erroldatuta daudenek taxia prezio murriztu batean erabili ahalko dute, erabilera honegaz: osasun zentroetarako joan-etorriak. Herritarrek euren etxetik Izurtzako, Mañariko, Durangoko eta Iurretako osasun zentroetara joateko modua izango dute, hain zuzen ere.

Auzotaxiak garraiobide "azkar eta iraunkorra" eskaini gura die herritarrei, beti ere "arrazoizko prezioan", indarrean dagoen ordenantzak jasotzen duenez.

Joan-etorri bakoitzaren prezioa 2 eurokoa izango da. Bidaia kopuruak ez du prezioa baldintzatzen; hau da, taxian lagun bat, bi edo hiru joan, prezioa berdina izango da. Joan-etorriaren gainerako kostua Izurtzako Udalak hartuko du bere gain.

Zehaztaper bat: auzotaxia Galdakaoko ospitalera joateko ere erabili ahalko da, baina, kasu ho-

rretan, tarifa arrunta ordaindu beharko da: euro bat kilometroko. Hau da, zerbitzuak ez du hobaririk izango.

Telefonora deitzen duenak Pedro Maria Moreno Lopez durrangarra aurkituko du beste aldean. 16 urte daramatza taxista lanean, Durangon. Auzotaxi zerbitzuan aurretik ere badu esperientzia, iazko abenduan indarrean ipini zen Durangoko auzotaxian ere badabil lanean eta.

Izurtzako auzotaxia astegunetan egongo da erabilgarri: astelehenetik barikura, 07:30etik 20:00etara. Asteburuetan ez da zerbitzua indarrean egongo, eta ezta abuztuan ere.

Herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek erabili dezakete. Adin horretatik beherakoek adin nagusiko batek lagunduta egon beharko dute.

Funtzionamendua

Erabiltzaileek, "ahal dela", kontsultaren aurreko egunean lotu



Durangoko taxi guneko irudia. Bertako Pedro Maria Moreno Lopezek eskainiko du zerbitzua.

beharko dute ordua taxistagaz, ordenantzak jasotzen duenez. Horretarako, telefono honetara deitu daiteke: 626 83 15 75. Erabiltzaileak mediku-kontsultako egiaztagiria erakutsi beharko dio taxistari, zerbitzuaren erabilera zuzena egiten dabilela erakusteko. Bestela, zenba-

teko osoa kobratuko da, hobaririk barik. Auzotaxia Izurtzako Udalak aspalditik indarrean ipini gura zuen zerbitzua da. Martxoaren 25eko udalbatzarrean eman zioten hasierako onarpena ordenantzari. Ondoren, alegaziorik egon ez denez, behin betiko onartu da.

Bertako zuhaitzekin berreskuratzen dabilzan basoetara bisita gidatua

MALLABIA • J.D.

'Ekaina Kulturala' egitarauaren barruan hainbat ekintza izango da hurrengo egunetan. Esaterako, gaur, 18:00etan, futbol freestyle ikuskizun gat eskainiko dute pilotalekuan, Mallabia Kirol Elkarteak antolatuta.

Mallabia Zaintzen taldeak bisita gidatua antolatu du domeka goizetarako, bertako zuhaitzak landatuta berreskuratzen dabilzan Mallabiko basoak ezagutze-

Mallabia Zaintzen taldeak antolatu duen bisita zapatu goizean izango da, plazatik irtenda

ko. 09:30ean ipini dute ordua, plazan. Handik, besteak beste, San Martinera joango dira eta hango zuhaitzak ikusiko dituzte. Azkenik, ekainaren 17an, Berri Txarrak taldearen dokumentala eskainiko dute Kontzejuzarrean. Aurretik eman behar da izena.

Kukai dantza taldearen, eta Sua, Kai Nakai eta Olatz Salvador musikarien emanaldiak Mañarian

'Kultura Sasoie' egitarauaren barruan, datozen hileak ekimenez beterik datoz

MAÑARIA • J.D.

Osasun krisiaren ondorioz kultur eskaintzan egon den hutsuneari, ekainetik irailera bitarteko egitarau sendo bategaz erantzun gura dio Mañariko Udalak. Dantza ikuskizunak, musika kontzertuak, film emanaldiak... denerik egongo da datozen hileetan.

Hasteko, dantza eta musika, ekainaren 25ean. Kukai taldeak *Gelajauziak* ikuskizuna eskainiko

du, 18:30ean; segidan, 19:30ean, Sua taldearen kontzertua hasiko da. Emanaldi bi hauetarako tokia ekainaren 14tik 18ra erreserbatu behar da.

Uztailaren 23a ere indartsu dator. Olatz Salvador musikari eta kantautore donostiarrak aurreten kaleratu duen *Aho Uhal* lan berria aurkeztuko du, 18:30ean. Gero, 20:30ean, Dupla talde aguraindarraren txanda izango da. Ikutu

elektronikoa zein hip-hop nahastu dituen pop musika da talde honen marka. Ikuskizun hauetarako erreserbak uztailaren 12tik 16ra egin behar dira.

Andra Mari jaien ostean dator hirugarren hitzordu interesgarria, irailaren 17an, hain zuzen ere. Egun horretan, Bulego taldeak 18:30ean eta Kai Nakai musikariak 20:15ean zapalduko dute Mañariko eszenatokia. Erreserbak irailaren 6tik 10era egin daitezke.

Ikuskizunetarako erreserbak 633 069 019 telefono zenbakira deituta (15:00-19:00 artean) edo whatsappera idatzita egin daitezke.

Film emanaldiak

Hainbat film emanaldik osatuko dute egitaraua. Uztailaren 9an, 22:00etan, *Un sueño posible* eskainiko dute; uztailaren 30ean, 22:00etan, *Erlauntza*, Mireia Gabilondo zuzendariaren film komikoa. Azkenik, irailaren 3an, 22:00etan, *Intocable* eskainiko dute, Goya eta Cesar sariak irabazi dituen film frantsesa.



Sua taldeak ekainaren 25ean eskainiko du kontzertua Mañarian. AIRAKA MUSIK

Otxandion eginiko konposta etxerik etxe banatuko dute kanpaina berrian

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Zero Zabor taldeak kanpaina berri bati ekin dio konposta egiten duten familien kopurua handitzeko. Gaur egun 130 familiak parte hartzen dute Otxandioko zazpi konpost gunetan. Konposta norbere etxean egiten dutenak ere badaude.

Boluntario talde batek etxerik etxe banatuko du herriko konpost gunetan eginiko konposta.

Etxeko loreontzietan nahiz ortuetan erabili daiteke, besteak beste. Modu horretara, hondakin organikoak birziklatzeak dakartzan onuren gainean kontzientziatu gura dute.

Konpostagaz batera esku orri bat banatuko dute. Ekimenean parte hartu gura duenak esku orri horretan bere datuak idatzi eta udaletxeko buzoian utzi dezake.





Errioxako paisaiaren aniztasunaz goza daiteke, familian, bidaia globoan eginda.



Naturaz ere goza daiteke Errioxan.



Ondo seinalatzatutako 1.400 kilometrotik gorako bidezidorrak ditu Errioxak.

Errioxa: distira aire zabalean, gertu-gertu

Uda gertu dago, eta hasi da oporretarako atzerako kontaketa; hori dela-eta, planak eta ihesaldiak egiten hasteko ordua iritsi da, aire zabalean egun entretenigarriez gozatzeko.

Hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horietaz lasai gozatzeko lekuak ditugu buruan. Une bat atsedean hartzeko eta naturaz etenik gabe gozatzeko, askotariko jarduerak egiteko edo familian denbora pasatzeko; Errioxak inguru paregabean eskaintzen dizkigun sentazio eta esperientziak; deskubritzeko leku bat, baina, batez ere, babesleku natural paregabea bizi izateko, sentitzeko eta honekin berriz konektatzeko leku bat.

2.000 metrotik gorako mendiak Eskualde honetako ekosistemek, bere biodibertsitate erraldoiak eta bertako paisaiaren aberastasun ekologikoak osatzen dituzte Errioxako mendilerroen eta mendien istorio harrigarriak. Helmuga turistiko segurua da; ez da Espainiaren azaleraren %1 baino gehiago, baina bi ekosistema bereizgarri eta paregabe daude bertan: mendiak, kasu batzuetan, 2.000 metrotik gorakoak dira, hala nola Demanda mendilerroko zintzur eta haitzarte amaigabeak eta San Lorenzo mendia, Obarenes, Toloño mendilerroa, Leza ibaiko arroila, Peña Isa-sa, Matute eta Tobiakoa, besteak

beste; eta, bestetik, haranak, babestutako espazioak, zuhaizti bereziak dituzten txoko naturalak, bide berdeak eta haritzeko basoak eta pagadiak.

650 kilometro ibilbide berdea Lurralde txiki honetan, **Sierra Cebollerako Parke Natural** ikusgarria dago, Camero Nuevo, Mediterraneo barruko aterpe atlantiko gisa, eta Puente Rako ur-jauzien ibilbidea; baita Leza (Camero Viejo), Jubera, Cidacos eta Alhama haranetako **Biosferaren Erreserba**, aldi berean **Starlight helmuga turistiko** gisa izendatua, izarrak behatzeko gure zeruen kalitate apartagatik; izan ere, egun, argi-kutsadura dela-eta, gero eta ezaugarri urriagoa da hori, baina Errioxaren kasuan, gaueko zerua Europako ilunenetako bat da.

Baina, gainera, Errioxa oinez gozatzeko lurraldea ere bada, adin eta maila guztietako ibiltarientzako egokia: ondo seinalatzatutako 1.400 kilometrotik gorako bidezidorrak ditu,

ERRIOXA NATURALA ZENTZUMENENTZAT OPARIA DA: UDAN DESKUBRITZEKO, BIZI IZATEKO, SENTITZEKO ETA GOZATZEKO

eta 650 kilometrotik gorako ibilbide berdeak, eta horiek guztiek paisaien mosaiko ederra osatzen dute, Naturagune Babestuak zeharkatuta, kalitatezko eta ondo banatutako berrehun landa-ostatu baino gehiagorekin.

Erraz zeharka daitekeen lurraldea da, eta naturarekin lotura intimoagoa izatea ahalbidetzen duten toki deskubritu gabeak eta masifikazio gutxiak hartzen ditu. Aukera ematen digu Espainiako natur soinuaren erreserbarik garrantzitsuenaz gozatzeko, eta isiltasuna da lurraldea bereizten duen baliabideetako bat, Biosferaren Erreserbako **Isiltasunaren Ibilbideen** bidez; horrez gain, paisaia gure zentzumen guztien bidez berraurkitzeko aukera dugu.

Ekoturismoa eta biodibertsitatea Errioxak ingurune natural pribilegiatua eta ekoturismoa egiteko gune ikusgarriak ditu, baina faunagatik, floragatik eta dituen berezitasun geologiko paregabeengatik ere nabarmentzen da. Lurraldean zehar, erosotasun handiz goza daiteke **Natura 2000 Sareko** naturagunez, eta bertako eremu geografiko ugarietako biodibertsitate aberatsa ezagut daiteke, babestutako espezie asko baitaude. Horren adibide da Alfaroko San Miguel kolegiata, Errioxa berezi egiten

duen lekuetako bat: bertan bizi da munduko zikoina zuriaren koloniarik handiena, eraikin batean finkatua, ehun bat habiaz osatua, eta 500 zikoina ingururekin.

Gainera, Cameros eskualdera joaten bagara, artzainen bizitza ezagut dezakegu **Transhuman-tzia Zentroan**, edo, benetako espeleologoak bagina bezala, estalagmitaz betetako **Ortigosako Haitzu-loak** bisitatu; eta Errioxa Beherera joatea erabakitzen badugu, **Contrebía Leucadeko** aztarnategi arkeologikoaren Museoa eta Interpretazio Zentroa bisitatu, non naturan zizelkatutako hiri zeltiberiarrek ikusi ahal izango ditugun Aguilar del Río Alhama.

Dinosauroen aztarna ugari

Dinosaurioak maite dituzten eta jakin-min handia duten guztientzat, Errioxa ezaugarri geologiko paregabeak dituen lurraldea da; munduan berezi egiten du horrek, eta Unescoren munduko sarean sartzeko hautagaitza aurkezteko aukera eman dio, **Errioxako Dinosauroen Aztarnen Geoparke** gisa. Izan ere, munduan inon ez dago dinosauroen aztarnen kontzentrazio hain handia: gutxienez 170 aztarnategi, 11.000 dinosauro arrasto baino gehiagorekin, Leza, Jubera, Zidacos eta Alhama-Linares haranetan.

Familian gozatzeko jarduerak

Errioxaz gozatzeko aukerak askotarikoak dira; bakarka, bikotean, lagunekin, baina baita familian ere; izan ere, uda honetan **erreserba egiteko** garaia da. Ibilaldi gogorren, bizikleta-ibilaldien, na-

turan zeharreko ibilaldien edo ondare, kultura eta geologia altxorretara bisitak egin ondoren, barre-algarak egiteko, izarren azpian gaualdiak igarotzeko edo bere establezimendu atseginen batean goxo-goxo lo egiteko.

Turismo aktiboaren eta abentura-turismoaren zaileentzako leku ezin hobeak dira Errioxako paisaiak hainbat jarduera egiteko, hala nola uretako kirolak beren ibairen batean edo **El Rasilloko Klub Nautikoan**, edo Najerilla, Iregua eta Leza ibarretako ibilbidea motorrez egitea, Eurovelo 1 eta 3 Europako ibilbideez gozatzeko, Errioxako paisaiaren aniztasuna mirestea globoan egindako bidaia batekin edo eskualdea definitzen duen mahastien itsasoa bisitatzeko segwayetan, quadetan edo zaldi ibilaldietan.

Errioxa bereziki egokia da familientzat. Encisoko **El Barranco Perdido**ko paleoabentura parkean abentura-zirkuituaz goza daiteke, baita hondartza kretazikoko igerilekue-tan bainu bat hartu, edo duela 120 milioi urte lur honetako biztanleak nolakoak ziren eza-gutzeko hainbat tailerretan parte hartu.

Errioxa naturala benetako oparia da zentzumenentzat; elkargune eta helmuga turistiko. Deskubritzeko, baina, batez ere, uda honetan bizi izateko, sentitzeko eta gozatzeko.



INFORMAZIO
GEHIAGO

“Topaketa honek Iurretan talde bat egituratzen hasteko balio dezake”

Iurretako plazak Biribilketa Feminista hartuko du domekan, Durangaldeko neska gazte eta feministen topaketa

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Leire Etxano Sarrionandia (Iurreta, 2002), Maitane Totorika Del Amo (Iurreta, 1999) eta Irati Areitio Sopena (Iurreta, 2001) anfitrioi lanetan egongo diren kideetarik batzuk dira. Hirurak irrikan daude domeka ailegatzeko. Guztira, Durangaldeko 90 neska gazte baino gehiago batu-ko dira Iurretako plazan.

Iurretako plazan dantza nagusi. Eta ‘Biribilketa’ bada dantza mota bat. Baina domekakoa oso bestelako zerbait izango da. Zer da Biribilketa Feminista?

Maitane Totorika: Funtsean, Durangaldeko neska gazteen topaketa da. Biribilketa Durangon egin zen orain hiru urte. Orain urte bi, Zaldibarren. Iaz, pandemia dela-eta, ezin izan genuen topaketarik egin. Aurtan, elkar saretzeari ekingo diogu berriro ere.

Irati Areitio: Topaketak egiteko deia Zornotzako Suhaziak taldearen partetik etorri da. Batzar telemati-koak egiten hasi ginen lehenengo. Presentzialak gero. Azkenean, topaketak Iurretako plazan egitea erabaki genuen.

Domekakoa neska gazteen topaketa izango da, beraz. Zeintzuk dira emakume eta gazte lez landu gura dituzuen gaiak?

M.T.: Esango nuke gazteak izanagaitik baditugula arazo batzuk, eta horri gehitzen badiogu neskak garela, bada, beste hainbat arazo pilatzen zaigu. Gizartea matxista da oraindino ere. Argi dago gazteok larrialdi egoera batean gaudela. Ez dugu emantzipatzeko aukerarik. Ez dugu lan baldintza onak izateko aukerarik, eta neska izanda, oraindino

“Lan askotan neska izateagaitik hartzen zaituzte; edo alderantziz, neska izateagaitik ez zaituzte hartzen. Genero arrakala da hori”

gutxiago. Lan askotan neska izateagaitik hartzen zaituzte. Edo kontra-koa, neska izateagaitik ez zaituzte hartzen. Genero arrakala da hori. Leire Etxano: Azken finean, etorkizuna gu garenez gero, argi dugu ez dugula etorkizun matxista bat gura.



Leire Etxano, Irati Areitio eta Maitane Totorika, Iurretako plazan.

Zein aktibitate egingo dituzue domekan?

I.A.: Hasieran neska-gazte kontzeptuaz hausnartuko dugu. Gero, Durangaldeko herri bakoitzean mugimendu feminista zelan dagoen aztertuko dugu. Herri bakoitzeko ordezkariak berba egingo dute. Arratsaldean honako tailer hauek egingo ditugu: transexualitatea, lodifobia, desheteronormatibitatea eta sare sozialak. Horrez gainera, seri-

grafia tailerra eta kontzertuak izango ditugu.

“Topaketa hauek talde bat egituratzen hasteko balioko digute beharbada; badugu horretarako beharrezana”

Herri bakoitzak bere diagnosia aurkeztuko duela esan duzue. Zein da Iurretan egiten duzuen diagnosia?

I.A.: Iurretan, bere horretan, ez dago neska gazteen talde antolatu bat. Zerbait kaleratu behar izan denean Gazte Asanbladak hartu du ardura hori, nahiz eta neska gazteak egon garen horren atzean.

M.T.: Batek daki, beharbada topaketa hauek talde bat egituratzen hasteko balioko digute. Badugu horretarako beharrezana.

Rothenberger enpresako beharginek hamar eguneko grebari ekin diote

Patronala eta sindikatuak akordio batera ailegatu ezean, ekainaren 17ra arte jarraituko dute greban

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko Rothenberger enpresako beharginek hamar eguneko greba hasi dute asteon. Akordiorik ezean, lanuzteak ekainaren 17ra arte iraungo du. Lan hitzarmena berriztea eskatzen dute. Hain zuzen ere, orain aste gutxi antzera bateko mobilizazioak egin zituzten lantegian. Bertako sindikatuen esanetan, “handia” da lantegian izaten ari diren lan eskaintza, “baina patronala hitzarmenaren negoziazioa blokatzen dabil pandemiaren aitzakiapean”. Hitzarmen berrian islatu gura duten puntuetariko bat arloan arloko soldata igoera da. Soldataren gorakada prima bidez gorpuztu barik, kopuruak soldaten oinarrietan igotzea gura dute. Beste aldarrikapenetariko bat langileen bajak “bereizketarik barik” kudeatzea da. LAB sindikatuak jakinarazi duenez, mahai sindikala (ELA, LAB, CCOO) eta patronala hainbat bider batu dira negoziatioetarako egiteko, baina oraingoz ez dute akordiorik lortu.



Rothenbergerreko beharginak, orain aste gutxi eginiko mobilizazio batean.

Algan eta Inervolen deituriko greba bertan behera utzi dute

Zaldibarko eta Abadiñoko enpresetan greba mugagabera deitu zuten astelehenerako

ABADIÑO-ZALDIBAR • J.G.

Enpresak astelehenean emandako pausoen aurrean, langileek greba bertan behera uztea erabaki dute Zaldibarko Inervol eta Abadiñoko Alga enpresetan. “Hile honetako nomina osoa ordaindu dute, eskaturiko dokumentazio ekonomiko-finantza-

ria eman dute eta informazio hori astero emateko konpromisoa hartu dute”, dio LABek. Sindikatuak gaineratu duenez, enpresa biak AMTEK taldearen barruan daude. AMTEK Indiako nazioarteko taldea da eta lehaketan sartuta dago herrialde hartan.



Algako beharginak aste honetako batzarrean.

'Zornotzanerosi.eus' jaio da, Zornotzako komertzioak bultzatzeko atari digitala

Komertzioek ikusgai ipini ditzakete euren zerbitzu eta produktuak, baita sarean saldu ere



Zornotzako udal agintariak egunean aurkeztu zuten 'zornotzanerosi.eus' plataforma.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako merkatariek atari berria dute eskura euren zerbitzuak iragartzeko zein saltzeko: *zornotzanerosi.eus*. Zornotzako Udalak garatu du Internet ataria, eta herriko dendarien eskura ipini du. Andoni Agirrebeitia alkateak esan du "pandemiak kalteturiko komertzio txikiari bultzada" bat ematea dela tresnaren helburua. Komertzioei dei egin die web orrian parte hartzera. Edizio hau ixterako, 49 bat ziren zerbitzuan izena emaniko dendariak. Kopuru hori "apurka-apurka"

igotzen joango dela aurreratu du Agirrebeitiak.

Iragarri zein saldu

Web orria prest dago, baina negozio bakoitzak hartuko du berau biziarrazteko ardura. Hau da, zerbitzuak eta produktuak iragarri gura dituen merkatariek bere txoko propioa kudeatu beharko du web orriaren barruan. Esti Martiartu zinegotziak azaldu du "hiru fase" daudela horretarako. Lehenengo fasean, komertzio bakoitzak bere oinarritzko datuak eta deskribapena ipiniko ditu. Bigarrenean, erakusleho moduko bat atontzeko aukera egongo da. Produktuen eta zerbitzuen argazkiak ipini ahalko dira. Hirugarrenean, dendariak Internet bidezko salmenta eskaini ahalko dute. Batzuk dagoeneko fase horretan daude.

Politikan

Jorge Varela
Herriaren Eskubidea
Podemos



Parte hartzea

Herriaren Eskubidea sortu zenetik hitz hau beti izan da garrantzitsua. Alderdi independentea gara, Durangoko kaleetan jaioa eta herritar guztiei irekitako parte-hartze prozesu baten inguruan sortua. Horregatik, gure ekintza guztiei loturiko ikurra izan nahi dugu.

Ildo horretatik, hainbat parte-hartze prozesu abiarazi ditugu. Adibiderik argiena, beharbada, tren geltoki zaharreko lurrei buruzko herri galdeketa da. Baina baita martxan jarri ditugun herri-tarrentzako beste prozesuak ere. *Partehartu.durango.eus* udal webgunearen bitartez hainbat prozesutan parte hartu ahal izan dute herritarrek, esaterako, alde aurretik ez zeuden aurrekontu parte-hartzaileetan, nahiz eta legez derrigorrezkoak diren eta aurreko gobernutaldeari urtero eskatzen genizkion; tokiko merkataritza suspertzeko plana (MSPB); udalerriko irisgarritasun plana... Aurrez-aurreko prozesuak ere gauzatu ditugu, hala nola Alde Zaharreko zaborren erredua, Otamotzena parkearen diseinua, COVID dela-eta ostalaritzarentzako diru-laguntzak...

Orain, gobernuan bi urtez egon ondoren, hausnarketa egin eta orain arteko ibilbidea eta egiteke dagoena aztertu behar da. Eta, berri ere, herritarrekin batera egin nahi dugu, saio irekietan. Izan ere, gobernantza alde guztiak entzutea, eurekin eztabaidatzea eta lan egitea delako. Durangon ditugun erronkei irtenbidea bilatzeko nahia dutenek bertan aurkituko gaituzte.

Durungaldea asteen

Alderdi Popularrak Jesus Maria Pedrosa gogoratu zuen Durangon joan zen barikuan

Durango | Durangoko Udalean Alderdi Popularreko zinegotzi izan zen Jesus Maria Pedrosa gogoratu zuten joan zen barikuan. Lore eskaintza egin zuten, ETAk hil zuela 21 urte bete ziren egunean. Durangoko hilerrian, Alderdi Popularreko Pablo Montesinos eta Carlos Iturgaiz batu ziren. Mari Carmen Hernandez Pedrosaren alarguna ere bertan izan zen.

Berbarok euskal hiztunen ahalduntze tailerra antolatu du ekainaren 26rako

Durango | Berbarok euskal hiztunak ahalduntzeko tailerra antolatu du ekainaren 26rako. "Euskal hiztunok ekinbide indibidualtik euskarazko espazioak zabaltzeko ditugun aukerak identifikatzea eta egunerokotasunean ahalduntzeko irtenbide berriak irudikatzea da tailerraren helburua", azaldu dute Berbaroko kideek. Tailerrean parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da.

Maiztegiko eskola eremua berriro erabilgarri eskola orduetatik kanpora

Iurreta | Ikasturte hasieratik Maiztegiko eskola eremua itxita egon da eskola orduetatik kanpora. Harrezkero, hainbat eskari egin dute eremua berriro zabaltzeko. Bere aldetik, EH Bilduk sare sozialetan jakinarazi du eurek ere hainbatetan egin dutela eremua berriro zabaltzeko eskaria.

Pandemiaren bilakaera ikusita, udalak eskola eremua berriro zabaltzea erabaki zuen. Ekainaren 4tik hona erabilgarri dago.



Andereak elkarteak babesa adierazi dio Costumerori Bilboko epaitegiaren aurrean

Bizkaia | 2017an, Aldundiak alabaren zaintza kendu zion Iruñe Costumerori Guraso Alienazioaren Sindromea (GAS) argudio modura ipinita. Sergio Murillo Bizkaiko Diputazioko Gizarte Ekintza diputatu durangarraren eta Aldundiko Haurren Arretarako Zerbitzuko beste hiru langileren aurkako epaiketa hasi zuten astelehenean. Arratiako mugimendu feministak egindako deialdiari erantzunez, Bilboko auzitegiaren aurrean eginiko kontzentrazioan parte hartu zuen Andereak elkarteak. Elkarteak "indarkeria instituzionala" salatu du Iruñe Costumeroren kasuan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

LIBURU AURKEZPENA

EKAINAK 15, 19:00 ETAN

OIHANA ARANAK BERE LIBURUA AURKEZTUKO DU LEIRE VARGAS BIDELAGUN DUELARIK

ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA:
946 81 27 26
biblioteca@iurreta.eus
WHATSAPPEZ: 688 86 37 36



Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibahima Balde
(Susa)



ARROZ UREZ
Mikel Antza
(Txalaparta)



BIZIA MIN
Jon Ander Urkiaga
(Lucas de Gállo)


#salduenak

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso








MARGOTU

Margotu beheko irudia zenbaki bakoitzari dagokion kolorea erabilita.



ESAERA ZAHARRA

Bete lauki bakoitza dagokion letragaz, behean daukazu alfabetoari jarraituta.









ITZALAK

Zein itzal dagokio
beheko irudi honi?



DOMINOA


Marrastu dagokion irudia lauki bakoitzean.





merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



'Karrikan'

ANTZERKIA **ELORRIO :: Ekainak 12**

'Karrikan', aro berri bati ekiteko sorturiko antzezlan

Karrika antzerki taldeak aro berri bati ekin dio *Karrikan* antzezlanagaz. Apirilean estreinatu zuten obra, Durangon. Orain, Arriola antzokian erakutsiko dute, zapatuan, 19:00etan.

Zortzi lagun plaza batean, buruan kaxa bana dutela. Horixe da eszenaratzea. Antzezleek eurek azaldu izan dutenez, "bakoitzari,

norbanako lez, kutxa bat egokitu zaigu, eta obran norberak kutxa horretan egokitu zaionera egokitze duen gogoari buruzko hausnarketa bat da". Uxuri Gallastegi, Maite Lopez, Naiara Lopez, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Mikel Uribeharrea, Maialen Magunagoitia eta Eider Chavez igoko dira oholtzara.

Ekainaren 11n

MALLABIA ikuskizuna
Futbol Freestyle saioa, 18:00etan, frontoian.

Ekainaren 12an

DURANGO bakarriketa
'FutbolisTOK' (Zuhaitz Gurrutxaga), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika
Organo, saxofoi, alboka, perkusio eta ahots kontzertua: Ana Belen Garcia, Caroline Phillips eta Mixel Ducau, 19:30ean, Andra Mariko basilikan. Arandoño elkarteak antolatutako kontzertua.

IURRETA dantza
Oinatz dantza taldea (Oñati) + Duguna dantza taldea (Iruña) eta Iurretako Dantza Taldea, 18:00etan, plazan. Udaberri Kulturala egitarauaren barruan.

ZORNOTZA bertsoak
'Durangaldea Uztabarritzen' bertso saioa, 18:00etan, Eubako frontoian. Irune Basagoiti, Gorka Pagonabarraga, Ander Elorriaga eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea: Durangaldeko Bertso Eskola. Sarrerak eskuragarri 17:00etatik aurrera.

Ekainaren 13an

DURANGO bertsoak
'Ez da kasualitatea', 13:00etan, Landako Gunean. Alaia Martin, Oihana Iguaran, Erika Lagoma eta Leire Vargas bertsolariak. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

DURANGO azoka
Nekazaritza azoka, 11:00etan, Andra Mariko elizan. Suziriak jaurtiko dituzte 12:00etan eta 19:00etan. Euskal musika, goiz eta arratsaldean.

DURANGO musika
Bartolome Ertzillaren soreé musikala, 18:00etan, San Frantsisko elizan. *La primavera del pianista, colección de seis bailables fáciles* partituren aurkezpena.

MALLABIA irteera
San Martinera irteera: Mallabiko basoak berreskuratzeko, 09:30ean, plazan. Hamaitakoa norberak eraman behar du.

Ekainaren 15ean

IURRETA aurkezpena
'Lazunak azkazaletan' liburuaren aurkezpena Oihana Arana egileagaz, 19:00etan, herri bibliotekan.

Ekainaren 17an

ABADIÑO dokumentala
Zinegoak 2021, 18:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO berbaldia
'Andren aurkako errepresio faxista: Durangoko espetxea', 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Hizlaria: Maria Gorosarri EHuko irakaslea eta Durango 1936 kultur elkarte kidea. Lekua hartzeko Arte eta Historia Museoa edo 94 603 00 20 telefono zenbakira deituta.

MALLABIA dokumentala
'Dardara' dokumentala, 17:30ean, Kontzejuzarreen. Bigarren emanaldia 19:30ean.

Ekainaren 19an

ABADIÑO antzerkia
'Lurrin minez', 19:00ean, Errota kultur etxean.

DURANGO musika
'Durango Hiria' txistu kontzertua, 19:30ean, San Agustin kulturgunean. Silboberri txistu elkarteak antolatuta. Xuacu Amieva & Dobra Asturiasko folk taldeak parte hartuko du.

DURANGO merkatua
Muruetatorreko bigarren eskuko merkatu txikia, 10:00etatik 15:00etara. Murueta Torre Auzo Elkarteak antolatuta. Izena emateko 649 756 357 telefonora deituta. Umeentzako ginkana, argazki zaharren erakusketa eta musika egongo dira.

DURANGO ekitaldia
Munduko Arrozak, 12:30ean, Ezkurdin. Kontzentrazioa eta argazki erakusketa.

IURRETA musika
Ekuru, 19:30ean, plazan. Udaberri Kulturala egitarauaren barruan.

MALLABIA bertsoak
'Durangaldea Uztabarritzen' bertso saioa, 18:00ean, plazan. Iruri Altzerreka, Paulo Salterain, Unai Iturriaga, Ander Gerrikaetxebarria eta Onintza Enbeita. Gai jartzailea: Eider Gallastegui. Sarrerak eskuragarri 17:00etatik aurrera.

Ekainean eta uztailan zehar

DURANGO erakusketa
'Darío de Regoyos. Durangoko begirada inpresionista', pintura erakusketa, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Abadiño ERROTA KULTUR ETXEA

• **Borrar el historial**
zapata 12: 19:00
• **Maya erlea urrezko esfera**
domeka 13: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **La casa del caracol**
barikua 11: 19:30/22.00
zapata 12: 19:30/22.00
domeka 13: 18:00/20:15
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguzartena 16: 18:00/20:15
• **Expediente Warren. Obligado por el demonio**
barikua 11: 19:30/22.00
zapata 12: 19:30/22.00
domeka 13: 18:00/20:15
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguzartena 16: 18:00/20:15

• **Sueños de una escritora en Nueva York**
barikua 11: 19:30/22.00
zapata 12: 19:30/22.00
domeka 13: 18:00/20:15
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguzartena 16: 18:00/20:15
• **Nur eta herensugearen tenplua**
domeka 13: 12:00

:: Zornotza ARETOA

• **El olvido que seremos**
barikua 11: 19:30
zapata 12: 19:30
domeka 13: 19:30
astelehena 14: 19:30
• **Maya erlea eta urrezko esfera**
domeka 13: 17:00

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

“Une honetan, bakarrizketak euskaraz gaztelaniaz baino gehiago gozatzen ari naiz”

Zuhaitz Gurrutxaga bakarrizketari eta aurkezleak FutbolisTOK bakarrizketa eskainiko du Durangoko San Agustin kulturgunean, zapatuan; 19:00etan izango da

KULTURA • IDOIA TORREGARAI

Zuhaitz Gurrutxaga bakarrizketari, aurkezle eta futbolari ohiagaz 'FutbolisTOK' ikuskizunaz, asaldura obsesibo-konpulsiboaz eta euskararen barre eragiteko eraginkortasunaz aritu da Idoia Torregarai. TTAP aldizkari digitalean publikaturiko elkarrizketa berreskuratu du ANBOTOK.

Futbolearen hasi zinenetik 20 urte pasatuta, futbolaren gaia oholatza gainera eraman duzu. FutbolisTOK ikuskizunagaz zabilta orain. Zelakoa izan da bide hau?

Mezu bat zabaldu nahi dut bakarrizketa honekin, hauxe: zer-nolako mesedea egiten duen norbere buruari barre egiteak eta norbere burua autoerridikulizatzeak, baita horrelako egoera dramatiko batekin ere. TOCa duen pertsonaren obsesioak eta konpulsioak irrazionalak dira %90ean, absurdoak. Nik horri buruz txiste bat edo umorea egiten dudanean, konpulsio hori edo obsesio hori absurdoa dela ikusten laguntzen dit argiago. Niretzat bakarrizketa hau botika bat da, mesedegarria da. Eta hori erakutsi nahi diot publikoari. Norbere buruaz barre egiteak bizitza pixka bat zoriontsuago egiten du, eta pixka bat gutxiago sufritzen laguntzen du. Hori teoriarik eta praktikan erakutsi nahi dut eta bakarrizketa honek horretan laguntzen dit.

Norbere buruaz barre egiteak bizitza pixka bat zoriontsuago egiten du, eta pixka bat gutxiago sufritzen laguntzen du

Buruko gaixotasunei buruzko tabuak apurtzen ari zara.

Bai, hala da. Futbolari nintzen garaian, bihurritu bat egiten nuen medikuarengana edo entrenatzailearengana joaten nintzen. Baina nola esan asaldura mental bat zenuela? Ezinezkoa zen. Egunerokoan ere jendeari kostatu

egiten zaio hori azalaraztea. Bakarrizketa honekin gauza bat gertatu da. Ez zen inondik inora nire lehenengo intentzioa, baina jende askok idatzi dit pribatuan gaitz bera duela eta bakarrizketa oso lagungarri egin zaiola esateko. Mezu horiek jaso ditudanean benetan sentitu dut bakarrizketa honek espero baino gehiago ematen didala. Horixe da niretzat arrakastarik handiena.

Eta botika ona izaten ari da? Zelan zaude une honetan?

Orain 15 urte baino %400 hobeto nago. TOCa daukan norbaitek badaki kronikoa izan daitekeela; beraz, harekin bizitzen ikasi behar duzu. Ni oso kontziente naiz obsesio edo konpulsio bat burutzen dudanean zertan ari naizen eta ez dela hori bidea, baina beti ez duzu lortzen ez egitea. Baina banaiz kontziente.

Umorean ibilbidea egin duzu azkeneko urteetan. Zelakoa izan zen hasiera?

Futbolari garaian gitarra ikasten hasi nintzen eta konturatu nintzen abesti batzuk egiteko gai nintzela. Kontzertu batzuk ematen hasi eta bertan abestien letrak azaltzen nituen, eta ohartu nintzen jendeak arreta gehiago jartzen ziola kontatzen nuenari kantatzen nuenari baino. Pixkanaka, gero eta gutxiago abesten nuen eta gero eta gehiago hitz egin, eta horrela iritsi nintzen bakarrizketetara. Futbolista baten konfidentziak izeneko bakarrizketarekin hasi nintzen, duela 7-8 urte eta FutbolisTOK jarraipen bat litzateke.

Tartean, telebista sartu zen, musikaren bidetik.

Tumaxak izeneko musika saioa aurkezteko zortea izan nuen duela zortzi bat urte, eta gerora, urtero zerbait egiteko aukera izan dut telebistan; batez ere, *Herri txiki, infernu handi* saioa. Eta oso eskertua nago nigan konfiantza jarri duten guztiei.

Zer eman dizu 'Herri txiki'-k?

Opari handi bat izan da, eta benetako maitasuna eman dit. Nik beste era bateko maitasuna ezagutu dut, futbolari garaikoa. "Aupa Gurru,



Zuhaitz Gurrutxaga Loiola
Aurkezlea
ELGOIBAR | 1980

el puto amo!" esaten zidaten egun batean, eta hurrengoan munduko txarrena nintzela. *Herri txiki*ko maitasuna jende helduarengandik dator. Badakit maitasun hori egiazkoa dela, adin horrekin ez daude faltsukerietan ibiltzeko, eta benetan sentitzen dute. Horrek asetu egiten nau.

Badakit adineko pertsonen maitasuna benetakoa dela, adin horrekin ez daude faltsukerietan ibiltzeko

Bakarrizketak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dituzu. Oso desberdina da?

Duela 7-8 urteko bakarrizketa hartan erosoago sentitzen nintzen gaztelaniaz. Orain, erosoago eta askozaz gustorago sentitzen naiz euskaraz egitean, eta badu azalpen

bat. Urte hauetan nire euskara maila hobetu egin da; batez ere, nire euskara batuaren maila. Erosoago sentitzen naiz euskara batuan hitz egiten, eta honek ere badu bere arrazoa. Nire bikotekidea baxenabartarra da, baigorriarra, eta orain berak oso ondo *entendintzen dau Elgoibarko berbetia, eta nik biziki untza konprenitzen dut Baigorriko mintzatzeko manera*. Baina hasieran ez zen hain erraza, eta erdibide bat bilatu behar izan genuen, eta hori euskara batua izan zen. Ordura arte, euskara batua ez nuen nirea sentitzen. Eta orain, euskara batua nire egunerokotasunera iritsi da eta zurekin euskara batua ari naiz eta neure buruarengan sinesten dut, lehen ez bezala. Une honetan, bakarrizketak euskaraz gaztelaniaz baino gehiago gozatzen ari naiz.

Gaztelaniaz umorea egitea errazagoa delako mitoa sinesten zenuen?

Hori uste nuen. Aitortuko dizut lehenengo gaztelaniaz idazten

dudala, eta txisteak ere lehenengo gaztelaniaz probatzen ditudala. Konplexu kontua izango da, baina nahiago izaten dut horrela egin. Gero, euskaraz idazten dut, nahiz eta desberdin idatzi. Nik ere uste nuen gaztelaniaz errazagoa zela barre eragitea, baina, zorionez, a zer-nolako zaplaztekoa hartu dudana azken urteetan. Euskara batuan barre eragitea posible da, eta ondo gainera. Kendu ditzagun konplexu guztiak. Nik kendu ditut, kostatu zait, neure buruari zaplaztekoa eman diodalako, baina, zorionez, euskara batuan barre eragin dezakegu, eta oso pozgarria da. Gozatu handia da; batez ere, nik ez nuelako uste. Euskarazko edukiek maila jaitsi egiten zutela uste nuen, eta orain, ohartzen naiz ezetz. Momentu honetan *FutbolisTOK* ikustera badator norbait, uste dut euskarazko edukia koska bat gorago dagoela. Gonbidatzen dut jendea euskaraz ikustera, eta ezin badu, gaztelaniaz ikusi dezala.

Hortzmuga konpainiak 'Bidearen amaiera' lana aurkeztuko du Kalez-kalen, lehenengoz euskaraz

Iurretako Kalez kale Euskal Herriko Mostra jaialdiaren hamabosgarren edizioa egingo dute ekainaren 18tik 20ra



Alkatea eta kultura arduraduna Deabru Beltzak eta Hortzmuga konpainiakoein.

ANTZERKIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 18tik 20ra bitartean, Iurretako XV. Kalez-kale jaialdia egingo dute. Aurten, betiko formatura itzuli eta hiru egunean, lau antzezlan izango dira. "Gatxa bada ere, ahalegin berezia egin dugu herritarrek kale antzekiagaz gozatzeko. Gainera, betiko formatua berreskuratzea da gu-

re asmoa, hau da, ikuskizun guztiak asteburu batean eskaintzea", adierazi du Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak.

Gainera, aurtengo Iurretako Kalez kale Euskal Herriko Mostra jaialdian antzezlan baten aurkezpenaz gozatzeko aukera egongo da. Hortzmuga konpainiak *Bidearen amaiera* lana an-

tzeztuko du, lehenengoz euskaraz. Hortzmugako kideek eguazteneko aurkezpenean esan zuten, publikoak eurekin batera barre egitea da lanaren asmoa, baita hunkitzea eta go-goeta eragitea ere. Horrez gainera, jaialdira joateko gonbidatu dituzte herritarrek. "Kultura berreskuratzea oso garrantzitsua da bai herritarrentzat baita gu-rentzat ere. Erakutsi dugu kultura segurua dela, eta, horregaitik, antzezlanera eta jaialdira batzeko deia egiten diegu herritarrei", azaldu dute Hortzmugakoek. Antzezlanak ekainaren 19an izango da, 18:30ean.

Bezperan Markeliñek *Chef Nature* aurkeztuko du, 18:30ean. Ekainaren 19an Erre Produzioak *Piraten istorio bat* eskainiko du, eta ekainaren 20an Deabru Beltzakek *Diberti-Dantza*, 13:00etan.

Udaletik azaldu dutenez, jaialdia segurtasun neurriak beteta egingo da, eta, hori dela-eta, beharrezkoa izango da sarrerak hartzea. Dagoeneko eskuragai daude, Ibarretxe Kultur Etxean.

Musika eguna

Bestalde, Musikaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Trio De Jazz Vocal Miss Blue&Friends taldearen kontzertua antolatu dute ekainaren 21erako. 19:00etan izango da, Ibarretxen.

Beñat Gaztelu-Urrutia izango da Gerediagako kudeatzailea

Gaztelurrutiak Arantza Atutxak utzitako lekua beteko du aurrerantzean; urte askoan lan egin du euskalgintzan

GEREDIAGA • JONE GUENETXEA

Gerediaga elkarteak jakinarazi du aurrerantzean Beñat Gaztelu-Urrutia abadiñarra izango dela elkartearen kudeatzailea. Gaztelu-Urrutiak herri mugimenduari eta euskalgintzari lotuta egin du bere ibilbide profesionala. 2002tik 2015era Plateruena Kafe Antzokiko zuzendaria izan zen eta azken urte bietan euskara teknikari lana egin du Elhuyar Aholkularitzan. Hartu-eman handia izan

du Durangoko Azokagaz, eta Gerediaga Elkarteko bazkidea ere bada. Gaztelurrutiak Arantza Atutxak utzitako lekua beteko du aurrerantzean. Elkarteak bere batzar nagusian hartu du erabakia. Zuzendaritza batzordeari dagokionez, hamar kidek osaturiko taldea izango da. Beste urte bian, Nerea Mujikak, Asun Elorriagak eta Belen Bengoetxeak presidente, idazkari eta diruzain karguetan jarraituko dute, hurrenez hurren.



Beñat Gaztelu-Urrutia eta Arantza Atutxa.

Gai librean

Isilaraziak

Zutabe honetan nire hausnarketak idatzi ohi ditut, baina oraingo honetan beste zerbait egitea gustatuko litzaidake, historiak isilarazi dituen emakumeen ahotsak berpiztu nahiko nituzke, eta zutabe hau beraien bozgorailu modura erabili.

Kasu honetan Maria Elisabet Portugalgoa izango da protagonista. 1797an jaio zen Portugalen eta 19 urte zituela bere osabarekin ezkondu zuten, Fernando VII.rekin, honek 32 urte zituela.

María Isabelek hezkuntza zabala jaso zuen gaztarroan. Ezagutza hauen artean humanitateak eta arte plastikoak zeuden. Margolan batzuk egin bazituen ere (lau hilabete zituela hil zen alabarena kasu), ez da gaur egun bat bera ere mantendu. Emakumeen aldeko hainbat ekarpen egin zituen



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

Horrela hasi zen munduko museorik garrantzitsuenetako baten historia. Isilarazia izan zen emakume batengatik

Medikuek pentsatu zuten hilda zegoela eta sabela zabaldu zioten umea ateratzeko

garai hartako Espainia atzerakoian. Hala nola San Fernando Erret Akademian lehenengoz emakumeek hezkuntza jasotzeko baimena lortu zuen.

Kulturaren alde egin zuen beste ekarpen garrantzitsua Prado Museoren sorkuntza izan zen. Gerra Napoleonikoen ostean Erret bildumako hainbat artelan Eskorialeko sotoetan gorde ziren. Maria Elisabetek egoera txarrean zeudela ikusita pentsatu zuen ideia ona izango zela beste lekuren batera eramatea eta ikusgai jartzea. Lehenengo aldiz edonork ikusi zezan Erret bilduma zoragarri hori. Goyak lagunduta, obra guztiak gaur egungo Prado Museora eraman zituen. Horrela hasi zen munduko museorik garrantzitsuenaren historia. Isilarazia izan zen emakume batengatik.

21 urterekin erail zuten. Erditzen zegoenean krisi epileptiko bat jasan zuen. Medikuek pentsatu zuten hilda zegoela, eta sabela zabaldu zioten umea ateratzeko. Orduan garrasi egin zuen eta betirako isilarazi zuten.

Tabirakok presidente bi izango ditu ekainaren 30etik aurrera: Alicia Gomez eta Hilario Perez

Zuzendaritza berriak ardurak hartzeko sistema eramangarriago bat bilatu gura du, erreleboak errazagoak izan daitezen

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Tabirako Saskibaloia Klubeko zuzendaritza berriak ezohiko organigrama bat probatuko du laster hasikoden legegintzaldian. Alde batetik, presidente bi izango ditu: Alicia Gomez eta Hilario Perez. Gainerako sai-

letako askotan ere hainbat lagunen artean banatuko dituzte ardurak. Gainera, sail bakoitzak autonomia-gaz lan egitea eta denen arteko lan-kidetza areagotzea da asmoa.

Kluba gidatuko duen erreleboa bilatzea gatxa izaten da askotan

eta eredu berriagaz boluntario lan eramangarriago baterako urratsak eman gura dituzte. Sinergia lan sendoago bat garatuta, jendea erreleboetarako erakartzea errazagoa izan daitekeela uste dute klubeko kideek.

Zuzendaritza berria aukeratzeko hauteskundeetara deitu eta hautagaitzarik aurkeztu ez zela ikusita, alarma gorria piztu zen klubean. Azkenean, barruko lanari eskerrak lagun talde bat prestu agertu da eta eurek hartuko dute gidaritza ekainaren 30ean egingo den batzarrean.

Kide asko berriak dira eta batzuek aurreko zuzendaritzatik jarraitzen dute. Aurreko zuzendaritzako kideak eta berrikoak behin baino gehiagotan batu dira azken aste bietan, elkar ezagutzeko eta informazioa partekatuzko.

Presidente biko ereduak erakari du arretarik gehien zuzendaritza berritik. Alde batetik, Alicia Gomez dago. Eskualdean bizi den gipuzkoarrek Gipuzkoako enpresaririk onenaren saria irabazi zuen 2018an, Aspegik, Emakume Profesional eta Entrepesari Elkarteak, urtero egiten duen sariketan. Klubeko askotariko sailen gertuko jaraipena egitea izango da bere lana.

Hilario Perez durangarra Gome-

zen maila berean egongo da. Bere sasoiaren, Perezek 10 bat urte eman zituen klubeko zuzendaritzan, eurretari lau presidente, 2007tik 2011ra. Beraz, badaki kargu horrek zer dakarren. Bere bigarren etapen, hartu-eman instituzionalak lantzen eta herriko askotariko elkarrekin eta klubekin lanean ari-tuko da. Bere sasoiaren, Tabirakoren sorrerako 50. urteurrenako ospakizunak gidatzea egokitu zitzaion eta legegintzaldi berrian klubarentzat garrantzitsua den beste ospakizun bat etorriko zaio: hurrengo denboraldian 50 urte beteko dira Cafes Baqué enpresa babesle dutenetik.

Gainerako sailei dagokienez, Tabirakok hiru presidenteorde izango ditu: Txetxu Basozabal, Alicia Gomez eta Iñaki Berriozabal. Idazkari lanak Olatz Muguerzak egingo ditu eta alderdi ekonomikoa Eduardo Sagaláren esku egongo da. Kirol kudeaketa hiru lagunen artean eramango dute: Pablo Molinaren, Sebas Perezen eta Txelu Martinen artean. Agurtzane Maiztegui eta Marta Eguen 'Euskara eta ikastetxeak' Saileko arduradunak izango dira eta mantentzea eta ekipamenduak Merche Martinezen eta Besi Carretoren kargu geratuko dira. Azkenik, sare sozialak eta webgunea Noemi Lopezen eta Txelu Basozabalen artean eramango dituzte.



Klubeko karguak utzi eta hartuko dituzten kideen arteko batzarra Landako kiroldegiko kantuan.

Durangoko Kulturalak azken partiduan berdinketa bat nahikoa du Hirugarren Mailari eusteko

Joan zen asteburuan Tolosan lorturiko garaipenari eskerrak pauso garrantzitsua eman zuten

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hirugarren Mailako denboraldia amaitzeaz da eta hondamendi handirik ezean Durangoko Kulturalak mailari eutsiko dio. Joan zen asteburuan hiru puntu baliotsu lortu zituen Tolosara eginiko bisitan eta, emaitza horri eskerrak, zapatu arratsaldean Tabiran jokatu den azken jardunaldian berdinketa bat nahikoa du maila segurtatzeko. Gainera, bere aurkariak, Lasarteko Urgatzi taldeak, ez du ezer ere jokoan, sail-

kapenenan azkenengo dagoelako mailari eusteko ezelango aukerarik barik. Lehenengo itzulian Kulturalak 1-4 irabazi zuen Lasarten.

Denboraldi irregular baten ostean, Durangoko klubak jaitziera fasea jokatu behar izan du. Fase hori porrot batez hasi eta gero, 3-1 Somorrostron, entrenatzailea aldatu zuten apirilean: Jon Larreategiren ordeztu, Jon Gonzalez 'Peli' sartu zuten. Kulturalak ez du partidurik galdu entrenatzaile berriagaz. Al-

daketa egin zenetik jokaturiko zortzi partiduetatik bost berdindu eta hiru irabazi ditu. Joan zen asteburuan Tolosan lorturiko garaipenak (0-2) salbazioaren atarian utzi zuen taldea. Josu Gallasteguiaren gol biri eskerrak ekarri zituzten puntuak etxera.

Taldeak sendotasuna irabazi du entrenatzaile berriagaz. Zortzi partidutan gol bi baino ez ditu jaso. Bost berdinketatik lau hutsean izan dira.



Entrenatzaile berriagaz hiru garaipen eta bost berdinketa da Kulturalaren balantzea.

Durangaldean gremioekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

Jokaldia

Kirola eta emakumea

Atzera begira jarriko naiz gaurkoan. Izan ere, orain dela 25 urteko bideo bat bidali zidaten atzo eta zerbait eragin zidan nire barruan. Bideo horretan Cafés Baqué familia handiaren txirrindularitza taldeko denboraldiko aurkezpene ikusten zen, eta ni hantxe agertzen naiz. 1995. urtea zen eta orduan hasi nintzen nire lehenengo pedalkadak ematen. Bost neska eta ia 60 mutil genbiltzan. Argazki horri begira-begira geratu naiz eta pentsarazi egin dit.

Orain dela 25 urte oso neska gutxi nahi genuen kirol hori egin. Nik zai-netan neraman, familiatik datorkit, baina txirrindularitzaren mundu hori mutilena zen. Hala eta guzti ere, bi gorpilak bihotzean neramatzen, eta entrenamenduak egin ahala eta oso momentu onak bizi ahala, txirrindularitzan neskak ere aritu ahal zirela barneratzen joan nintzen apurka.

Ahalegin handia, entrenamendu gogorrak eta izerdi latzak ekarri zizkidan txirrindularitzak, denen kontra borrokatzeko. Hala ere, inoiz ere ez



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

**"Momentu onak bizi ahala,
txirrindularitzan emakumeak
ere ibili gintezkeela
barneratzen joan nintzen"**

**"Inoiz ez zait ilusiorik falta
izan. Gogor jarraitzen nuen
lanean frogatu arte neskak
bizikletan ibili gintezkeela"**

zait ilusiorik falta izan eta gogor jarraitzen nuen lanean, frogatu arte neskak bizikletan ibili gintezkeela eta etorkizun bat izan genezakeela bizikleta gainean.

Ostera, gaur egun, konturatzen naiz, talde batean, neskek garrantzi gehiago dutela mutilek baino, nahiz eta hori ez den kontratuetan islatzen. Baina atzo bizikletan nindoala ere, pentsatzen nuen, zenbat emakume ote dabilen orain kirol honetan. Lehen, familia bakarrik zen, eta gaur egun, familia, kirola eta lana dira. Emakumeok apurka-apurka hartu dugun indar eta ahalduz horrek kirolean desfogatzen eta norberarekin ondo sentitzen garamatza.

Gero eta neska gehiago ikusten dut bizikleta gainean. Haiei moduan, niri ere kirol honek ematen didan askatasuna asebetegarria da.

Pandemiak ere lagundu digu ikusarazten zein garrantzitsua den sentimendu hori izatea, eta hemendik animatzen zaituztet denbora antolatzen eta kirolak ematen duen bizipoza sentitzera.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Iker Lara Fernandez. Zumarraga Fabrikazio
Mekanikoko Diseinua Goi Mailako Heziketa Zikloa

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Mekatronika Industrialak
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/gmh onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

IZEN-EMATEA

Maiatzak 31tik ekainaren 18ra



Zergatik aukeratu zenuen goi mailako ziklo hau? Eta zergatik MGEP?

Batxilergoa bukatu ostean konbentzita nengoen diseinuarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuela. Ate irekietara etortzerakoan fabrikazio mekanikoko ikaslea izango nintzela baieztatu zen. Betidanik SolidWorks/AutoCad eta horrelako programak gustuko nituelako. MGEP-k fama ona duenez, bertara etortzea erabaki nuen. Gainera, hainbat lagun hona etorri behar ziren.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten dugu, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Lehenengo mailan Zilindro pneumatikoaren erronka egin genuen eta kurtso amaieran Plastikoa birrintzailearen erronka, baina hau paperean gelditu zen ezer fabrikatu gabe COVID-19ak eragindako etxeratzearen eraginez. 2. mailan, Dassault-eko 3DExperience eskaintzen duen ingurune kolaboratiboa erabiliz, CATIA-rekin plastikoa injeztatzen injektore baten diseinua egin genuen. Eta azken erronkan, skateboard bat diseinatu eta fabrikatu dugu. Aurten, gainera, klasean ikasle onen ardurapean 3D inprimatzaileak izan ditugu eta batxilergoan ere noizbait erabilita nituen, jo eta su izan ditugu denbora osoa, bai klaseko piezak inprimatzeko bai gure gauzak inprimatzeko. Beste titulazioetako ikasleek ere, beraien erronketarako piezak inprimatzeko ekartzen zizkiguten. Esperientzia oso ona izan da klasekoekin lana egitea. Fabrikazio mekanikoari buruz ezagutza handia lortu dut.

Orain FCT-a egiten ari zara, kontatuko diguzu zure esperientzia?

FCT-ak egiten Ormaiztegiako CEG (Construcciones Eléctricas Gipuzkoa) enpresan nago, diseinuko departamentuan martxoaren 8tik. CEG Ormaiztegin igogailuentzako motorrak egiten dituzte, gaur egun 4 motor ezberdin dituzte. Motorrak diseinatu eta fabrikatzen dituzte hor bertan. Delineatzaile ari naiz lanean, Planoak eta 3D-ak moldatzen. Klasean ikusi dugun SolidWorks programa asko erabili dut, egunero. Planoak nahiz multzoak egiteko. Egia esan, lankideen harrera oso ona izan zen (enpresa erakutsi eta lankideak aurkeztu zizkidan), guztiak laguntzeko prest daude, eta oso gustura nago. Edozein zalantza galdetu eta beti erantzuten didate.

Zer ikasi duzu CEG Enpresan?

Norberaren lana ondo ez bada egiten, ez dela produktua aurrera ateratzen. Azkenean kate moduko bat da, kate-maila batek kale egiten badu prozesu guztia pikutara joaten da. Norberaren garrantzia ikustea lortu dut. Enpresan hasi nintzen, beldur pixka bat nuen, nola erantzun nuen, agindutako lanak betetzeko gai izango nintzen... Baina denen laguntzarekin dena askoz errazagoa da. Orain, enpresa batean "sartze" prozesuari beldurra ere galdu diot.

Zure lehenengo lan-esperientzia izan eta gero, zer espero zenuen eta nolakoa da?

Nire lehen esperientzia izanda, lan mundua espero baino gogorragoa dela ikusi dut, gogoko duzun zerbaitetan lan egitea oso garrantzitsua dela ere ikasi dut.

Eta datorren urtean zer?

Gaur egun COVID-19 egoerarekin lan munduan geratzea oso zaila da. Beraz, aukerarik ez badago beste Lanbide Heziketako ziklo bat egitea gustatuko litzaidake.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO




ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



DURANGO
JESUITAK: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.
210.000€ C.E.E=G



DURANGO
TABIRA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du.
217.000€ C.E.E=G



DURANGO
MAGDALENA: Etxebizitza BERRIA. (5 urte) 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garajea eta trastelekua.
323.000 € C.E.E= B



DURANGO
MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Igogailua. AUKERA.
155.000 € C.E.E=E



DURANGO
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak Terraza komunitarioa. Bizitzera sartzeko moduan.
198.000 € C.E.E=F



IURRETA
MASPE: 126 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Ikuspegiekin.
250.000 € C.E.E=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Barrenkalea. Eraikin berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun.

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira, berrizatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrira. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
MARTXOAREN 8KO KALEA: 12 urteko antzinatasuna. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea/mendebaldea). 18,30 m²-ko garaje itxia.
315.000 € C.E.E: Bidean



ABADIÑO
2 logela
79,7 m²
ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobe. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.
212.000 € C.E.E:Bidean



DURANGO
118 m²
3 logela
MONTEBIDEO/EZKURDI: 118 m². Egongela, sukaldea, jangela, 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua. EZIN HOBEA NORBERE GUSTURA JARTZEKO.
229.000 € C.E.E:E



DURANGO
79 m²
3 logela
JOSE MARIA DE IPARRAGUIRRE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Banakako gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (Mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Garajea. Bizitzera sartzeko moduan.
264.000 € C.E.E:E negoziagarria



ZALDIBAR
2 Logela
84 m²
EUSKAL HERRIA KALEA: Egongela, sukalde jantzia. 2 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Banakako gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea, hego-mendebaldea) Argitsua. Igogailua. Ezin hobe. 18 m²-ko garaje itxia. Leku onean kokatua.
219.000€ C.E.E:E



OTXANDIO
3 logela
87 m²
MAINERROTA PLAZA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde jantzia. Balkoia. Banakako gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Ezin hobe. 16 m²-ko garajea eta 7 m²-ko trastelekua. (kalera ematen du). Leku onean kokatua.
169.500 € C.E.E: Bidean

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 11 · 09:00-09:00	
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA 14 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 15 · 09:00-09:00
09:00-13:30	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	EGUAZTENA, 16 09:00-09:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	09:00-22:00
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 17 · 09:00-09:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
DOMEKA, 13 · 09:00-09:00	
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Amaiur (852. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeke txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Zorionak, hirukote mundiala! Ekaina berezia egiten dozue zuen urteen ospakizunekin. Gure etxeko sorgin-printzesak zarete. Muxu majikoz betetako poltsakada bana etxekoan partez!



Enara Artiñano **Jaiok** ekainaren 9an 10 urte egin zituen! Zorionak eta belarritik tirekada bat etxeko danen partez!



Gaur, ekainak 11, **Izaro Placeres Garitaonandia** 9 urte egin ditu. Zorionak, laztana! Segi horren bizkor eta alai. Mosu handi bat etxekoan partez. Itzelean maite zaitugu.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌧️ 27° / 13° ☀️	ASTELEHENA 🌧️ 29° / 18° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 25° / 16° ☁️
DOMEKA 🌧️ 33° / 17° ☀️	MARTITZENA 🌧️ 29° / 16° ☁️	EGUENA 🌧️ 18° / 14° ☁️



MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olioia etab.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperminak, etab.

 Enkarguak egiteko edo informaziorako, **telefonoz** edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri: **688 773 205 / 688 734 329**

"Matienako anbulatorioitik asko daramat bihotzean, asko eman didatelako"

Esther Gorostiza Abadiñoko pediatra izan da azken 36 urtean. Orain, Axpekoak bata zuria eskegi eta etapa berri bati aurre egingo dio. Hiru belaunaldi igaro dira bere kontsultatik



**Esther
Gorostiza Garai**
Pediatra
ATXONDO 1963

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Pediatría espezialitatea amaituta, Gorostizak Gastroenterologia eta Nutrizio ikasketak sakondu zituen Parisen (Frantzia), eta 1985ean pediatra hasi zen lanean Abadiñon. Matiena eta Zelaletako osasun zentroetan jardun zuen lau urtean, lanaldia partekatuz. Azken 32 urteak Matienan egin ditu bertako umeak artatzen.

Hainbat belaunaldi pasatu da zure kontsultatik urte hauetan. Zein sentsazio sortzen dizkizu horrek?

Batetik, norberaren urteak gorantz doazela. Bestetik, sentsazioa dut aldatu egin dela gurasoen konpromisoa umeen zaintzari dagokionez; onerako aldaketa izan da. Hun-

kigarria da umetan kontsultara etorri zirenak euren seme-alabekin etortzea. Eta, sarritan, ilobekin etorri dira lehenago seme-alabekin zetozen aitita-amamak. Denbora luzean leku batean egoteak helburu batzuk zehazteko aukera eman digu. Arlo zientifikoa ikasten jarraitu dugu, beti ere egunerokoari egokituz, eta ikasitakoa gurasoei transmititzen ahalegindu gara.

Pediarren lana aldatu egin da?

1989tik aurrera aurrerapen handiak bizi izan ditugu lehen arretako pediatrian. Lanaldi osoak ipini ziren eta pediatra batek gehienez 800 ume artatzea erabaki zen. Horrek arlo berrietan lan egiteko aukera ekarri zuen: haurren osasun pro-

grama, gaixotasun kronikoak (asma, obesitatea...) eta, azken urteotan, arlo psikosozialari lotutakoak.

Zelaleta eta Atxondoko pediatría plaza sortu zenean, gurasoein hartu-eman estuagoa izateko aukera izan nuen

Zelakoa da hartu-eman gurasoein?

Ez du zerikusirik sasoi bateko hartu-emanagaz. Zelaletako eta Atxondoko pediatría plaza sortu zenean, gurasoein hartu-eman estuagoa izateko aukera izan nuen, konfiantza sendotzeko. Urte gutxian Matiena asko hazi zen, ezinean ibili nintzen.

Pediatría zerbitzua arduraz bizi dute gurasoek Durangaldean.

Gaur egun umeen artatzea ez dago ziurtatuta lanaldi osoko pediatragaz, eta lehen arretako pediatría konplikatu egin da azken urteotan. Amatasun baja bategaitik, jubila-zioagaitik edo gaixotasunagaitik pediatría titularra falta denean, ez dute ordezkorik ipintzen, edo lanaldi partzialean ipintzen dute. Egoera luzatzen bada zerbitzuaren kalitatea jaisten da. Ume bakoitzari merezi duen arreta emateko, beharrezkoa da lehen arretan pediatrak lanaldi osoan ipintzea, zerbitzua egunero emanez. Horrek lehenetsuna du.

Izango duzu pasarteren bat kontatzeko.

Umetan artatutako guraso batek haxe esan zidan: hain dut bizimodu osasuntsua ze, nire umearentzat gauza bera egitea eskatu gura dizut.

Ume bakoitzari merezi duen arreta emateko, beharrezkoa da lehen arretan pediatrak lanaldi osoan ipintzea

Zelakoak izan dira pediatría lez bizitako azken egunak?

Uneoro bihotzeko taupadak entzunez. Guraso eta umeen agurrak, lankideen eta udal ordezkarien aitortza... ez daukat berbarik eskerrak emateko. Eguneroko lana erraztea eta partekaturiko erabakietan errespetatua sentiaraztea eskertu gura diet denei. Ibilibide profesionalaren gailurrean dago aitortza hori. Ez dut sekula ere ahaztuko unerik latzenetan emaniko laguntza. Bestalde, barkamena eskatu gura dut inork sentitu badu ez dudala bere itxaropena bete. Asko daramat bihotzean, asko eman didatelako.

Pandemia bizitzea ere tokatu zaizu.

Ziurgabetasunezko momentu asko bizi izan ditugu denok, eguneroko kontsultak pandemiaren bilakarearen arabera egokituz. Gatxa izan da arreta telefonoz ematea, zalan-tza handiagoak eraginez kasua bideratu artean. Sekula ikasi bako atentzioa ematea tokatu zaigu.

Bata erantzita, zer egingo duzu orain?

Etapla berri bati ekin, ilusioz beterik. Gogoia dut semeekin eta ilobagaz denbora pasatzeko, lagunekin mendian ibiltzeko, musika entzuteko...

Lauhortza

Alina Ahtamon
Medikua



Haurdunaldia, erditzea eta erditze-ondokoa

Orain dela hilabete batzuk haurdunaldiaren inguruan egon ginen hizketan. Dudarik gabe, guraso izateko erabakia hartzea abentura bati ekiteko prestatzea bezalakoa da, abentura horrek haurdunaldiarekin hasi eta bizitza osorako irauten du.

Gaur erditzeari eta erditze ondokoari buruz hitz egingo dizuet. Erditzea, bueno, kasu bakoitzaren arabera da; nire kasuan oso polita izan da, mingarria bai, baina polita, oso giro onarekin, musikaz lagunduta... eta nire Aurora besoetan jarri zidatenean ezin nion negar egiteari utzi. Ordu ahaztezinak dira erditzearenak.

Erditze ondokoan jaioberriak hartzen du protagonismo guztia. Emakumeak, ordea, bere abentura pertsonala hasten du

Erditze ondorengoa, ordea, askoz ere motelagoa da eta mota askotako momentu ugari ekartzen ditu. Esan beharrik ez dago emakumea dela haurdunaldiaren protagonista nagusia, baina erditze ondokoan jaioberriak hartzen du protagonismo guztia. Emakumeak, ordea, bere abentura pertsonala hasten du: pelbiseko mina, odoljarria, depresioa izateko arriskua sortzen duten hormona maila baxuak, lo falta, edoskitzea eta horren zailtasunak, gerneru-inkontinenzia eta abar.

Zalantzarik gabe, egoera berri honetarako, egokituz joan beharra dago, baina zer-bait esango dizuet: merezi du!

DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,

ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian